

# AFRIKA'KO IPUIN / ALEGIAK



## TXAKAL JATUNA

Arloteak eta guzurtiak, lentxuago edo gerotxuago, euren ziritetan itoten dira. Alegi onetako txakalari ez eutson balio izan bere maltzurkeriak dromedarioari izeka egiteko. Bere barreak errekearen barrenean ito ziran.

Diñoe txakal jatun batek azukare-kañabereaz janketa aundi bat egin nai izan ebala, baiña ori errekearen beste aldean egoan eta berak ezin eban errekea igaro.

Maltzurkeriz, dromedarioagana urreratu zan eta esan eutson:

—Ba-dakit bedar orlegia ta biguna atsegin jatzuna eta baita ori ugari non dagon be baiña errekea dago bitarte.

—Or ez dago arazorik —erantzun eutson dormedarioak— nire anka luzeakaz jolas bat da nitzat errekea igarotea.

—Gertu zagozen ezkerro, eroan nagizu neu be.

—Pozik. Eldu ondo nire konkorrari eta ziur joan.

Esan eta egin. Biak joan ziran pozik, ibillaldi batera doazen lagunak lez.

Bedarra aurkitu ebenean, dromedarioa jaten asi zan bare eta gozatsu. Bitartean txakala sartu zan azukare kañaberen artera eta al eban beste jan eban. Bete zanean eta azukarea begietatik urten-bearrean eukanean, dantzan asi zan zoli, barruan eukana ondo eioteko, eta eragiñagaz batera abestu be egiten eban oiur zorrotzak egiñez.

Zarata ikaragari onen aurrean, zelaietako zaintzailleak etxeetatik urten eben zer jazoten zan ikusteko eta dromedarioa ikusi eben bedarra jaten eta onen aurka asarretu ziran.

—Parkatu —esan eban dormedarioak bere burua zuritzeko— nik ez nekian bedar onek jabea eukanik. Nik ordaintzeko edozein lan egingo dautzuet zuen landetan.

—Zu ez zaitugu bear ezertarako be —oiur egin eben zaintzalleak— eta zigorrak artu eta emon-emonak egin eutsoezan dromedario errukarriari.

Esan bearrik be ez dago, bitartean txakal maltzurra ondo oztenduta egoala sasi-artean eta zaintzailleak ara joan ziranean barreka urten eban dromedarioari izeka egiten

—Nik ondo nekian bedar onek jabea eukana, baiña ondo etortan zure konkorra azukare-kañanberetara etorteko. Gose danak zurtasuna bear izaten dau.

—Zuk zeunkana ez zan gosea, jatunkeria baiña —esan eban ganbeluak, eta esan eutson gaiñera:

—Laster noa errekearen beste aldera, an bedarra ez da ain ona baiña ez egoan baserritar zigortzailerik.

—Ederto. Neu be beste aldera joango naz, ba´naroazu.

—Igon! –erantzun eban ganbeluak– eta errekearen erdi-erdian gelditu egin zan eta sama luzea biurtuz txakalari begiratu eta esan eutson:

—Egia da gosea dagonean ardura bagerik jokatu bear dala, baiña ura edan bear da.

Ori esan ebanean konkorrari eragin eutson eta txakala uretara jausi zan. Uger egiten ez ekian lez, ito egin zan antxe.

Tximiñoi batek, zugatzarren abar-artetik ikusi eban dana eta bere lagunai esan eutsen:

—Onari izeka dabillena, onen aldetik izekatua izango da.

‡ OLAZAR´tar Martin´ek